



EBAZPENA, Zientzia eta Berrikuntza sailburuordearena ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia ebazten duena.

Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuaren 2024ko urriaren 1eko Aginduaren bidez, 2024ko urriaren 11ko 199 zbk. EHAA, ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzetarako deialdia egin zen. Agindu horren 10. artikuluan ezarri bezala, eta batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, honakoa

E B A T Z I D U T

Lehenengoa.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea Ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak aplikatzeko zentroz bestelakoetan egonaldiak egiteko laguntzak.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoen zerrenda ezartzea, lehentasunaren arabera zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 12. artikulua zehazten duen bezala beteko dira.

Hirugarrena.- III. eranskinean jasota agertzen diren baztertutako eskatzaileen zerrenda onartzea, arrazoiak zehaztuz.

Laugarrena.- Ebazpenaren aurka, interesdunek gora jotzeko errekurtoa jarri ahal izango diote Zientzia, Unibertsitate eta Berrikuntzako sailburuari, argitaratu eta biharamunetik hasita, hilabeteko epean.

Vitoria-Gasteiz, sinaduraren egunean

ADOLFO MORAIS EZQUERRO
ZIENTZIA ETA BERRIKUNTZA SAILBURUORDEA